

+18 urtekoentzako OTOITZA

AIN KAREMen abestia

Ain KAREM. [YouTube](#)

Entzun, hausnartu eta otoitz egiteko.

Lehorrean erein. (Carlos Aguerrea 2023ko az.)

Lehorreak geroz eta zorrotzagoak dira. Zikloak erabat aldatu dira eta euriak geroz eta urriagoak dira. Eguzkia harro agertzen da bere zeruko palkoan, zoru baldar honen erdian ereiten saiatzen den guztia suntsitzen.

Berdin dio iristen zaigun fenomenoaren generoa: "La niña"-rekin, oso euri gutxi egiten du; "El niño"-rekin ez du batere euririk egiten. Bi fenomeno hauen azalpen zientifiko guztiak ondorio berdinerara iristen dira, lehortera.

Iaz oso goiz hasi zen euria egiten eta gure nekazariak goiz animatu ziren ere ereiten hastera. Hurrengo asteak benetako zigorra izan ziren presa izan zutenentzat. Kimuak erre egin ziren eguzki indartsuarekin, eta kimuekin batera, erein zuten nekazarien itzaropena erre zen ere. Azkenean, euria urri eta berandu iritsi zen. Gariak bakarrik eman zuen uzta txukuna, gutxirekin konformatzen baita. Urte gogorra, saltzeko produkturik gabea eta beraz, gainerako elikagaiak eta beharrezko produktuak erosteko dirurik gabea.

Aurten behintzat, ez da horrelako frustraziorik egon. Abendua iristear da eta ez da euririk iristen. Egunetik egunera geroz eta ohikoagoak dira ekaitz lehorrak, hodei asko, haize gogorra, tximistak, trumoiak eta lurra bustitzen ez duten lau tanta. Bero neurrigabe eta arraro batek mehatxatzen gaitu duela hilabete batzuetatik hona. Ia inork ezin izan du lehorreagatik oso gogor dagoen lurra prestatu. Gogorra da, beraien bizi erabat lurraren, uraren eta eguzkiaren menpe daudenen testigantzak entzutea.

Bitartean, latitude hurbiletan, suak basoak, zelaiak eta oihanak kiskaltzen ditu. Naturaren bihozgabetasunari, jendearen inkontzientzia, ekoizle handien interes ekonomikoak, naturarekiko eta mendeetan bizi izan direnekiko mespretxua batzen zaizkio. Anbizio modernoak ez ditu errespetua, oreka edo zaintzaren esanahiak ulertzen.

Eguzkiak, lur haizedunak eta ke bidaiariak itotzen gaituzte. Beldur naiz ez ote dudan produkturik izango, ez errentarik, ez etorkizunik. Gure herriarekin gerta daitekeenaren beldurrak inguratzen gaitu, migrazio gero eta handiagoarekin eta etengabeko desertifikazioarekin. Eta, hala eta guztiz ere, zeruko eta lurreko oztopoak gaindituz, iragarpen

txarrei eta mezu derrotistei entzungor eginez, indarkeria eta iraina besterik barreiatzen ez dutenei aurre eginez, lur lehor honetan ereiten jarraituko dugu.

Itxaropena ereingo dugu, bera gabe irribarreak amaitu eta ahaleginak iraungi egingo liratekeelako.

Senidegoa ere ereingo dugu, bizitzaren abentura honetan behar garelako, batez ere bidea korapilatsuagoa denean.

Duintasuna ereingo dugu, inor berriro mespretxatua izan ez dadin, denok anai-arrebatzat hartu gaitzen.

Eta, heziz, gizarte osoarentzat, herri guztientzat, belaunaldi guztientzat **etorkizun hobea** ereingo dugu. Nahiz eta lurra lehortu, nahiz eta euria atzeratzen saiatu, nahiz eta munduak su hartzen jarraitu eta gizadia kiskali, guk ereiten jarraituko dugu.

San Mateoren Ebanjeliotik (Mt 13, 24-30)

Gari arteko olo gaiztoaren parabola

Beste parabola bat proposatu zien Jesusek: «Jainkoaren erregetzarekin, gizon batek soroan hazi ona erein zuenean bezala gertatzen da. Etxeko denak lo zeudela, etsaiak soroan sartu eta gari artean olo gaiztoa erein zuen eta alde egin. Garia hazi eta burutu zenean, olo gaiztoa ere agertu zen. Joan ziren, orduan, morroiak etxeko nagusiari esatera: “Jauna, ez al zenuen hazi ona erein soroan? Nondik du, bada, olo gaiztoa?” Hark erantzun zien: “Etsaiaren lana da hori”. Eta morroiek: “Joango al gara olo gaiztoa biltzera?” Baina nagusiak: “Ez, ez dadila gerta olo gaiztoa biltzean garia ere ateratzea. Utzi biak batera hazten uztaeroa iritsi bitartean; orduan, igitariei esango diet: Bildu lehenik olo gaiztoa, lotu eta erre; garia, berriz, jaso nire mandiora”»

Elkarrekin otoitz egiten dugu:

*Entzun Aita gure otoitza,
entzun gure kantua.*

*Entzun eskolapioetan parte hartzen duten
munduko hainbeste haur eta gazteei,
beraien familien negarra eta barrea ere
entzun itzazu.*

Entzun eta lagundu ez etsitzen.

*Jesusen jarraitzaile bezala eta Harekin
batera,*

misioaren bultzadan irautea.

Calasanzen obran ez etsitzea.

*Batez ere, zure Erreinua erreal bihurtzeko
lanean jarraitu dezagun hemen eta orain.*

*Ez ahaztu Aita, zure beharra dugula, eta
bidal iezaguzu indar eta bokazioak
eskolapioen famili handi hontara.*